


STM

San Telmo Museoa

Zuloaga plaza 1
20003 Donostia – San Sebastián
Telefonoa: 943 48 15 80
santelmo@donostia.org
www.santelmomuseoa.com

San Telmo Museoa 

AZTARNAK OROIMENEAN IBILBIDE OROKORRA

Irakasleentzako koaderno

Lehen Hezkuntzako Hirugarren Zikloko Irakasleentzat





SARRERA

Proposatzen den ibilbidea talde osoak batera gidari batekin egiteko pentsatua da. Gidaria Museoko langilea izan daiteke, edo irakaslea bera, bisitaldi autonomo gisa ere egin daiteke eta.

San Telmo Gizarte Museo bat da; alegia, iraganera begira etorkizunari heltzeko erronkak azaltzea da asmoa. Hartara, askotariko gaiak jorratzen ditu. Beraz, Museo zabala da zentzu guztietan. Bisitaldi bakar batean ikasleekin dena lantzea ezinezkoa denez, honako ibilbide honetarako hari bati jarraitzea erabaki dugu: ondarearen aniztasunari erreparatzea objektuen materialen bidez. Horrela, objektuak eta beren materialak (harria, zura, burdina...), ez ezik, historian zehar bizimoduen bilakabidea, lanbideak, iraunkortasuna, ondarearekiko eta museoen egitekoekiko sentiberatasuna jorratzen ahal dira.

Jakina, bisitaldi gidatua kontratatu beharrean irakasleak bisitaldia bere kabuz egin nahi badu, hemen agertzen diren bisitaldi gidatuarekiko erreferentziak haren gain geratuko dira. Hartara, hoberena museoa alde aurretik bisitatzea da. Dena den, hark egin nahi lituzkeen azalpenez aparte eta haien lagungarri, koaderno honetako fitxetan erantzunetatik harago doazen azalpenak ere gehitu dira. Azalpen horietako datuak edota gogoetak ikasleei helarazi ala ez, eta, egitekotan, nola, irakaslearen gain geratzen da, bera baita taldea hobekien ezagutzen duena. Halaber, irakaslearen esku geratzen da bisitaren aurretik edo ondoren ikastetxean jorra daitezkeen gaien osagarri gisa erabiltzea edo ez.

Jarduera osoa egiteko, ordu eta erdi kalkulatzen da.





Bisitaldiaren prozedura:

Bisitaren hasiera:

Ongietorria, Museoaren eta jorratu beharreko gaien aurkezpena (kontratutako bisitaldi gidatuen kasuan).

Eliza:

Ikus-entzunezkoa (13 min.)

Ariketak beheko eta goiko solairuan:

Beheko klaustroan bertan eta “Espiritualtasun zeinuak” eta “Aztarnak oroimenean” erakustaretoetan; XVI. mendeko dorretik igota goiko klaustroan eta “Tradizioak bizirik dirau” eta “Industrializazioa, aldaketaren eragilea” erakustaretoetan.

Proposatutako objektuen harira, gidariak hainbat azalpen emango du, bertan taldeak bete beharreko fitxaren datuak bete ditzan: museo teknikariak direlakoan, proposatutako objektu bakoitza (argazkia erakutsiko zaie) bilatu, izena idatzi, lehengaia seinalatu eta lehengai bakoitzaren zenbait ezaugarri adierazi beharko dituzte. Erraz eta arin egite aldera, abantaila eta desabantaila bana aipatzeko eta lehengaiaren eskuragarritasun maila zehazteko baizik ez zaie eskatuko.

(Irakasleak bere kabuz egitea erabakitzen badu, bere esku geratzen da pasarte hau).

Fitxak lantzeko ordena gehienbat ibilbide koherente bat egiteko (atzerabiderik gabe) planteatzen da, baina ez da ordena zorrotzekoa, fitxak berez autonomoak dira eta. Hain zuzen, proposatzen diren hemezortzi fitxak gehieneko kopurua da, haietarik taldearen interes, ahalmen eta igurikipenen arabera batzuk edo bestetzuk hautatzeko aukera izan dadin.

Era berean, ibilbide bera egiten duten bi ikastalde egonez gero, bisitaren ordena (hala nola, goiko klaustroan hasita) alda daiteke.

OHARRA: Irakasleen gida honetan, ariketen erantzunak eta azalpenak beltzago eta etzanean daude.


Hona hemen, beheko eta goiko solairuen plano banatan, ariketa bakoitza egiteko kokalekua:





Beheko solairua

San Telmo Museoa





Goiko solairua

San Telmo Museoa





OBJEKTUA:



IZENA:

Oinarria

MATERIALA:

Harria

MATERIALAREN ABANTAILA:

Iraunkortasuna eta gogortasuna

MATERIALAREN DESABANTAILA:

Pisua eta lantzeko zailtasuna

MATERIALAREN ESKURAGARRITASUN MAILA:

oso zaila / zaila / ertaina / ***erraza***

Harri mota asko dago; baina horretan sartu gabe ere, eraikuntza iraunkorrerako lehengai nagusia da. San Telmo hareharrizkoa da, lantzen erraz samarra baina era berean higitzen ere erraza. Kareharritik sortu da zementua, gaur egun eraikuntzarako ezinbesteko lehengaia, Euskal Herrian oso arrunta; adibidez, Rezola, harrobia eta guzti, Donostian bertan dago.



OBJEKTUA:



IZENA:

Kandela

MATERIALA:

Argizaria

MATERIALAREN ABANTAILA:

Iraunkortasun eta eraginkortasun handiko erregaia

MATERIALAREN DESABANTAILA:

Beroarekiko sentiberatasuna eta desegiteko erraztasuna

MATERIALAREN ESKURAGARRITASUN MAILA:

oso zaila / zaila / ***ertaina*** / erraza

Ezkoa edo argizaria gehienbat argi emateko erabili izan da, euskarazko izen arruntenak, argi-zariak, adierazten duen bezala. Erleak dauden toki guztietan aurki daiteke; baina askorik ez dagoenez, argi on eta goxoa ematen duen arren, luxua zen eguneroko jardunbideetan erabiltzea eta batez ere eginkizun erlijiosoetan erabili izan da, elizan nahiz etxean. Haren garrantziaren adibide, euskal ohitura bat: erleak zituzten etxeko norbait hiltzen zenean, erleei argizaria emateko eskatzen zitzaien, hildakoari argi-eskaintzak egitearren.



OBJEKTUA:



IZENA:

Ukendu-ontzia

MATERIALA:

Beira

MATERIALAREN ABANTAILA:

Gardentasuna eta garbitasuna

MATERIALAREN DESABANTAILA:

Hauskortasuna

MATERIALAREN ESKURAGARRITASUN MAILA:

oso zaila / **zaila** / ertaina / erraza

Dohain handiko materiala, gardentasunaz gain garbitzen erraza delako ez du edukiaren zaporea edo kutsua hartzen, ez eta hark ere edukiari ematen ere, metalezko, zurezko edo lurrezko ontziek ez bezala. Baina industrializazioa arte garesti zen, eta gainera oso hauskorra jardunbide arruntetan erabiltzeko.



OBJEKTUA:



IZENA:

Kanoia

MATERIALA:

Burdina

MATERIALAREN ABANTAILA:

Moldakortasuna eta gogortasuna

MATERIALAREN DESABANTAILA:

Pisua eta herdoiltzeko erraztasuna

MATERIALAREN ESKURAGARRITASUN MAILA:

oso zaila / zaila / ertaina / ***erraza... Euskal Herrian***

Burdingintza izan da Euskal Herriko jardunbide ekonomiko nagusietako bat, baita industrializazioaren aurretik ere. Antonomasiatzko metala izan da eta oraindik ere hala da, hura gabe ezin gure mundua ulertu. Lan eta energia handia eskatzen bazuen ere, kontuan hartuta zenbaterainoko erabilerak dituen, merkea dela ondoriozta daiteke, historikoki ere bai.



OBJEKTUA:



IZENA:

Sare-orratza

MATERIALA:

Hezurra

MATERIALAREN ABANTAILA:

Zorroztasuna lortzeko erraztasuna

MATERIALAREN DESABANTAILA:

Hauskortasuna

MATERIALAREN ESKURAGARRITASUN MAILA:

oso zaila / zaila / ertaina / **erraza...** *Euskal Herrian*

Hezurra historiaurretik erabili izan da, lantzen eta eskuratzen erraza izan delako. Gainera, erraz zorroztu daiteke. Euskal Herrian bale-hezurak ere erabili izan dira, orratz hau egiteko, adibidez. Bale-arrantza gehienbat lumera, argikuntzarako koipea, lortzeko egiten zen; baina gainerako guztia ere erabiltzen zen: haragia, mingaina (oso goxoa, omen), hezurrak, larrua, bizarrak...



OBJEKTUA:



IZENA:

Gerruntzea

MATERIALA:

Bale-bizarra

MATERIALAREN ABANTAILA:

Malgutasuna

MATERIALAREN DESABANTAILA:

Tamaina handiko gairik lortzeko ezintasuna

MATERIALAREN ESKURAGARRITASUN MAILA:

oso zaila / zaila / ertaina / *erraza... Euskal Herrian*

Bale-bizarrak berebiziko lehengaia izan da plastikoa asmatu aurretik. Berez keratinazkoak dira, azkazal modukoak, eta, plastikorik ezean, mendeetan malgutasuna eta era berean gogortasuna zituzten material gutxitarikoak. Horregatik oso preziatua zen gerruntzeak, aterkiak eta halakoak egiteko.



OBJEKTUA:



IZENA:

Soinekoa

MATERIALA:

Zeta

MATERIALAREN ABANTAILA:

Goxotasuna eta dotorezia (distira, leuntasuna...)

MATERIALAREN DESABANTAILA:

Hondatzeko erraztasuna (urragarria, kolorge...)

MATERIALAREN ESKURAGARRITASUN MAILA:

oso zaila / zaila / ertaina / erraza

Material oso garestia bi arrazoiengatik: harretatik soineko bat egiteko adina hari lortzea berez lan handia eskatzen duelako, eta oso jatorri urrunekoa delako, Asia ekialdekoa, nahiz eta arabiarrei esker adibidez historikoki Valentzian garrantzi handiko jardunbide ekonomikoa izan. Luxu eta botereari loturiko gaia, aberatsen eta eliztarren jantzietan baino ez da ikusi duela gutxi arte.



OBJEKTUA:



IZENA:

Motxila

MATERIALA:

Larrua

MATERIALAREN ABANTAILA:

Biguntasuna eta era berean euskortasuna

MATERIALAREN DESABANTAILA:

Usteltzeko eta zartzatzeko erraztasuna

MATERIALAREN ESKURAGARRITASUN MAILA:

oso zaila / zaila / ertaina / ***erraza***

Historiaurretik erabiltzen den lehengaia, abantaila handiak dituena: pisu gutxikoa, malgua eta era berean gogorra (abereen uhalak egiteko erabilia), iragazgaitza (motxila, zorro, maleta, poltsa nahiz zahatoetan erabilia)... Baina tamaina handiko gauzak nekez egiten dira, eta, materia organikoa denez, zaila da ongi kontserbatzea. Material plastikoek hein handi batean ordeztu dute, adibidez motxila eta maletetan.



OBJEKTUA:



IZENA:

Galtzerdiak

MATERIALA:

Artilea

MATERIALAREN ABANTAILA:

Berotasuna eta, harilkatuta, forma lortzeko erraztasuna

MATERIALAREN DESABANTAILA:

Alergiak sortzeko eta berehala usteltzeko erraztasuna

MATERIALAREN ESKURAGARRITASUN MAILA:

oso zaila / zaila / ertaina / ***erraza***

Abeltzaintzarekin batera zabaldu zen artilearen ehungintza, duela milaka urte. Landare-zuntzak baino errazago lortzen da, eta gainera ardiek esnea eta haragia ere ematen dute. Landare-zuntzek baino bero handia ere ematen du eta oro har lantzen ere errazagoa da: galtzerdiak artzainek berek egiten ahal zituzten artaldea zaindu bitartean. Baina materia animalia-jatorrizkoa denez, errazago usteltzen eta desagertzen da.





OBJEKTUA:



IZENA:

Kutxarroa

MATERIALA:

Adarra

MATERIALAREN ABANTAILA:

Iraunkortasuna eta iragazgaitasuna

MATERIALAREN DESABANTAILA:

Tamainak eta formak aldatzeko ezintasuna

MATERIALAREN ESKURAGARRITASUN MAILA:

oso zaila / zaila / ertaina / ***erraza***

Adarra lantzen erraza da, eta eskuragarria; iragazgaitza, arina eta puskatzeko arrisku handirik gabe eramangarria da; baina formaz eta tamainaz oso mugatua denez, olio eta bolbora eramateko edo edalontzi modura baino askoz gehiago ez da erabili. Euskal artzainek goritutako burdinaz apaindura ikusgarriak egiten zituzten.



OBJEKTUA:



IZENA:

Pegarra

MATERIALA:

Buztina

MATERIALAREN ABANTAILA:

Moldakortasuna eta iragazgaitasuna

MATERIALAREN DESABANTAILA:

Hauskortasuna


MATERIALAREN ESKURAGARRITASUN MAILA:

oso zaila / zaila / ***ertaina*** / erraza

Neolitikoaz geroztik, eraikuntzarako gai gisa ere erabili izan da, adreiluetan. Lehengai arin, moldagarri eta, labean errez gero, iraunkorra da; gainera, esmaltea (beirazko geruza arina) emanda, likidoek ez dute zaporerik hartzen eta garbitzen errazak dira. Problema: buztin guztiek ez dute balio; horregatik buztin-gileak herri zehatz batzuetan aurkitzen ziren. Iturriko ura etxeratzeko pegarra, euskal ontzi tipikoa, forma itxiagatik egiten oso zaila da.



OBJEKTUA:



IZENA:

Maindire edo izara

MATERIALA:

Lihoa

MATERIALAREN ABANTAILA:

Harilkatu eta ehunduta, tamaina erabakitzeko aukera

MATERIALAREN DESABANTAILA:

Urratzeko erraztasuna

MATERIALAREN ESKURAGARRITASUN MAILA:

oso zaila / zaila / **ertaina** / erraza

Lihoz mukizapi bat nahiz itsasontzietako belak egin zitezkeen. Esaera zaharrak ("Lihoaren atsekabeak, amaigabeak") ederki erakusten du lan pila egin behar zela lurra goldatetik arropa jantzi arte. Normalean emakumeen lana izan da. Emaitza: arropa arin eta goxoa... hori bai, erraz zimurtzen dena.



OBJEKTUA:



IZENA:

Kutxa

MATERIALA:

Zura

MATERIALAREN ABANTAILA:

Xehero lantzeko erraztasuna

MATERIALAREN DESABANTAILA:

Arrisku asko: zorroak, sua, hezetasuna, hauskortasuna...

MATERIALAREN ESKURAGARRITASUN MAILA:

oso zaila / zaila / ertaina / **erraza**

Zura oso lehengai eskuragarria da historiaurretik. Denetarikozur motak daude, eraikuntzarako zein gauzarik ñimiñoena egiteko balio dutenak, ia zuhaitz mota guztiak erabil daitezke eta. Euskal altzarigintzan, deigarrienak kutxak dira, formaz ez ezik, oso apainduak izaten zirelako: ezkontzean andregaiak etxe berrira arropak eramaten zituztenez, beti eramaten zituzten kutxak, eta apaindura maila ekonomiko eta soziala agertzeko modu bat zen.



OBJEKTUA:



IZENA:

Liburua

MATERIALA:

Papera

MATERIALAREN ABANTAILA:

Idazteko eta marrazteko aukera

MATERIALAREN DESABANTAILA:

Arrisku asko: zomorroak, sua, hezetasuna, urragarria oso...

MATERIALAREN ESKURAGARRITASUN MAILA:

oso zaila / zaila / ertaina... Euskal Herrian / erraza

Papera gabe ezin ulertu gure kultura, liburuetan informazio pila bildu eta eraman daiteke eta. Papergintza jardunbide garrantzitsua izan da, Tolosaldean batez ere. Lehengaia zelulosa (egur-orea) denez, zaila da kontserbatzea, areago papera gehienbat orri mehetan erabiltzen dugulako. Bestetik, papergintzan zuhaitz asko erabili eta ur asko kutsatzen da. Euskarri informatikoez erabakiko dute haren etorkizuna.



OBJEKTUA:



IZENA:

Espartina

MATERIALA:

Espartzua

MATERIALAREN ABANTAILA:

Tamaina eta forma zehazteko aukera

MATERIALAREN DESABANTAILA:

Higatzeko erraztasuna

MATERIALAREN ESKURAGARRITASUN MAILA:

oso zaila / zaila / ertaina / ***erraza... Euskal Herrian aspaldi honetan***

XIX. mendean industrializazioarekin batera lehengaia Euskal Herrira ekarri zenez geroztik, espartingintza (gaiak eman dio izena oinetakoari) izugarri zabaldu zen, oinetako merkeak denen eskura jarrita. Ordura arte, euskaldun gehienak oinutsik ibiltzen ziren. Gaur egun udako jantzia edo festetako da gehienbat.



OBJEKTUA:



IZENA:

Anfora damaskinatua

MATERIALA:

Urrea (damaskinatua) burdinaren gainean

MATERIALAREN ABANTAILA:

Distira, iraunkortasuna eta lantzeko erraztasuna

MATERIALAREN DESABANTAILA:

Zailtasun tekniko oso handia

MATERIALAREN ESKURAGARRITASUN MAILA:

oso zaila / zaila / ertaina / erraza

Urrea aspaldi handitik ezaguna bada ere (lehen metaletariko da, erromatarrei buruzko bitrinan ikus daitekeen bezala), oraindik orain oso garestia da, oso gutxi dagoelako. XIX. mendean, damaskinatua izeneko teknikari esker, Eibarko artisau batzuek urre gutxirekin emaitza ikusgarriak lortzen zituzten.



OBJEKTUA:



IZENA:

Galtzak

MATERIALA:

Kotoia

MATERIALAREN ABANTAILA:

Tamaina eta formak zehazteko aukera... makina izanez gero

MATERIALAREN DESABANTAILA:

Higatzeko eta urratzeko erraztasuna

MATERIALAREN ESKURAGARRITASUN MAILA:

oso zaila / zaila / ertaina / erraza... *Euskal Herrian aspaldi honetan*

Kotoia aspaldi handitik ezaguna da, baina Euskal Herrian exotikoa izan da XIX. mendera arte. Industrializazioarekin batera, hainbat lantegik atzerritik kotoia inportatu eta produktu berriak zabaldu zituzten, merke samar; adibidez, langileen galtzak, hain zabalduak ezen haien kolorea "Bergarako urdina" izenez ezaguna baita.



OBJEKTUA:



IZENA:

Hautestontzia

MATERIALA:

Metakrilatoa (gai plastiko bat)

MATERIALAREN ABANTAILA:

Moldakortasun handia

MATERIALAREN DESABANTAILA:

Hondatzeko arrisku handi samarra

MATERIALAREN ESKURAGARRITASUN MAILA:

oso zaila / zaila / ertaina / erraza... gaur egun

Plastiko izenaren pean petroliotik eratorritako hainbat material aipatzen da. Material hauek abantaila ikaragarriak dituzte: kolorea, forma, tamaina, lodiera... aukeratzeko modua eskaintzeaz gain, gehienak merkeak izan ohi dira. Gure garaiaren sinbolotzat har genezake. Hori bai, ez dira oso iraunkorrak izaten eta industria petrokimikoa oso kutsagarria da.





ONDAREA KONTSERBATZEKO GARRANTZIAZ SENTIBERATASUNA AREAGOTZEKO ARIKETAK:

Museoen zeregina ondarea biltzea, behar bezala gordetzea eta zabaltzea da; ondarea zaintzea, ordea, denon ardura da.

Beheko klaustroan, "Aztarnak Oroimenean" aretoaren aldean.

- San Telmo ia bostehun urte ditu. Orain guztiz zaharberritua dago. Baina, iraungo badu, kontuz ibili behar da. Horregatik ezin dira gauzak ukitu, ezta harriak ere, gogor gogorak izan arren.

Hona hemen hareharri bat, San Telmoko harriak bezalakoa. **Igurtzi** eskuz:

Zer gertatzen da? **Hondar aleak erauzten zaizkiola.**

- Papera asmatu ez balitz, ez genuke gure historiaz ia ezer ere jakingo. Baina papera oso delikatua da, ukitu gabe ere hondatu egiten da eta.

Konparatu orri bat, ilunpean kontserbatutako aldea eta argitan gordetakoa.

Zein orrialde kontserbatu da hobeto? **Argitu gabea.**

- Zertarako balio dute museoetako gauzek, ezin badira erabili?

Bada... hain zuzen, denboran zehar iraun dezaten! Eta hala ere, lanak! Burdina bera, oso gogorra izanagatik ere, hondatzen da kanpoan utzita.

Ezetz asmatu zein den burdinaren **etsairik okerrenetako bat!**

- Begiak: ikusteko, argia behar dutelako.
- **Hatz-mamiak, haiekin laztantzen dugulako.**
- Ahotsa, hitz egiten dugunean beti eskapatzen zaigulako tua, tanta mikroskopikoak badira ere.

Izerdia (eta hatzei izerdia darie, etengabe) hezea eta gazia da, eta elementu hauek biek metalak herdoiltzen dituzte.

- Giroa hezeegia edo lehorregia bada, edo hotzegia edo beroegia, landare- eta abere-zuntzeko materialak narriatu egiten dira.

Baina okerrena aldaketak dira, horrela hondatzen dira gehien egurra, larrua, oihalak (artilea, lihoa, kotoia...), eta abar. **Konparatu** material berberak: zeintzuk daude hobeto eta zeintzuk okerrago?

Larrua, oihala eta egurra oso heze, oso lehor eta behar bezala: hiruna puska.






AZTARNAK OROIMENEAN IBILBIDE OROKORRA

donostia**kultura**.com



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



DONOSTIA 2016
SAN SEBASTIAN

Erakunde laguntzaileak:

San Telmo Museoa



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputacion Foral de Gipuzkoa

Patrono pribatuak:



EL DIARIO VASCO



berria^{info}

GARA

naiz:

